

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Asteazkena, 2012ko uztailaren 4a. IX. urtea. 2.378. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



I. TERRADILLOS

Jon Jaunarena Pilotaria

«Gogotsu nago lehen mailan jokatzeko, baina errespetu handia diot»

Bigarren mailako buruz buruko txapelketa irabazi ostean, denboraldi berean bi lehia nagusiak lortu dituen bakarra da pilotari leitzarra ◊6

Neville Tranter Txotxongilolaria

«Txotxongiloek irudi indartsuak sortzeko aukera ematen dute»

Unima Udako Eskola antolatu du Topic zentroak eta ikastaro nagusiko irakaslea da ◊3



IGL

Bengoaren lanak ikusgai, Alegiako Jubilatuen tabernan ◊4

Rapa Nui kultura gertutik Ibarren, Haka Ara Henua taldearekin ◊7



TOLOSALDEA

GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA

ingeleraz ere bai

ziklo guztiak euskaraz

Zure etorkizuna ziurtatzen dugu!

MATRIKULA EPEA: Uztailaren 5etik 11ra

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Instalazio elektrikoak eta automatikoak
- Mikroinformatika-sistemak eta sareak
- Mekanizazioa
- Soldadura eta Galdaragintza

GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Mekanika
- Informatika
- Administrazio eta Finantzak
- Instalazio Termikoko eta Fluidodun Mantentzea
- Automatizazio eta Robotika industrialia
- Metal eraikuntzak

Asuncion klinikak elikadura ohiturei buruzko mahai ingurua egingo du

Zerkausion egingo dute bihar, 19:00etatik aurrera; 'Osasuna Elikatu' kanpainaren azken ekitaldia da

Rebeka Calvo Tolosa

Tolosako Asuncion klinikak Osasun Gaiak ekimena jarri zuen abian ekaina hasieran. Programaren barruan hilero gai bat jorratuko dute «modu erraz eta eraginkor batean osasuna zabalatzeko» eta ekainekoa *Osasuna elikatu* lelopean egin dute. Ekaineko kanpaina bukatzeko bihar, osteguna, mahai inguru bat egingo dute Zerkausion, 19:00etan.

Mahai inguruaren helburua osasuna eta elikadura ohiturei buruzko hainbat gomendio ematea da eta hiru izango dira hizlariak: Luis Angel Samaniego klinikako zainketa intentsiboko gureko burua, Cristina Perez Garaye Asuncioneko dietetika eta elikatzeko aditua eta Roberto Ruiz Frontoi jatetxeko sukaldaria.

Horiek horrela, bihar Zerkausion gerturatzen denak, Ruizek prestatutako jakiak dastatu ahal izango ditu. Asuncion klinikak aurreratatu duenez, sukalde mugikor bat jarriko dute Zerkausion eta mahai inguruan hitz egiten dutena praktikara eramateko jakiak prestatutako dituzten Ruizek bertaraten diren artean banatze-ko.

Dietetika adituaren hitzak

Asuncioneko arduradunek esan dutenez, klinikako dietetika eta elikatze adituak elikaduraren inguruan izaten diren mito faltsuen inguruan hitz egingo du. «Ogiak gizontzen duela eta dieta disoziatuek oinarri zientifikoa dutela ge-

zurra da», argitu du adituak. «Elikadura ohiturak, osasuntsuak izateaz gain, erakargarriak izan behar dira, eta gure zentzuek –ikusmena, usaimena, dastatzea eta baita entzumenaren ere– bizitu behar dituzte, plazerra eta ongizatea eraginez», gaineratu du. Perez Garayek kalitateko elikagaietan oinarritutako dieta anitzak defendatzen ditu otorduekin ez aspertzeko, «dieta bat anitza ez bada normalean alde batera uzten baita», esan du.

'Osasuna elikatu' kanpaina

Biharko hitzorduarekin bukatuko da, beraz, *Osasuna elikatu* kanpaina. Ekainean burutu dute, eta hainbat jarduerak egin dituzte, ostiraletan kliniketan bertan banatutako fruituak esaterako. Era berean, dietetika adituak eta Ruiz sukaldariak errezeta osasungarriak eta elikadura taulak prestatu dituzte ekimenerako.

Uztailean eta abuztuan ez dute ekimenerako kanpainarik egingo, baina irailean *Zaindu zure bihotza* izenpean jarduerak egingo dituzte, urrian *Negu garbia* lelopean, eta azaroan *Eri kronikoak: diabetea* izango da jorratuko duten gaia.

Egonaldi ertaineko gunea

Bestalde, Asuncion klinikako arduradunek uztailearen 1etik beste zerbitzu bat eskaintzen dutela azaldu dute: egonaldi ertaineko ospitalizatzeko gunea. Azpiakututako gaixoei zuzendutako gunea da, hau da, pertsona helduei, eta patologia zein medikatzeko askokoei, jasan ohi dituzten gaixotasun kronikoengatik ahal egoten direnak. «Gaixo hauek beren osasun bilakaeran arazoak izateko arriskua daukate, eta arreta zehatza eta egonaldi luzeko ospitalizatzeko behar izaten dute guneren bate-



Asuncion klinikaren zerbitzu berri bat ematen dute uztailearen 1etik. E. EZEIZA

Bidegoiango eguneko zentroak ate irekien festa egingo du, gaur

15:30etik aurrera urteko ekitaldietan ateratako argazkiak ikusi ahal izango dira eta ondoren, merienda banatuko dute



Bidegoiango eguneko zentroa. HITZA

R.C. Bidegoian

Bidegoiango Udalak jakinarazi duenez, herriko eguneko zentroan ate irekien eguna egingo dute, gaur. 15:30ean urtean zehar egindako ekitaldien argazkien emanaldia egingo dute eta jarraian merienda banatuko dute.

Albiztur eta Beizamako adinekoak ere meriendara gonbidatuak daudela gogoratu nahi izan dute, eta garraioarekin arazoak izanez gero gizarte zerbitzuetera deitzeko esan dute, 943 681128 telefono zenbakira.

Era berean, Errezilgo eguneko zentroan gauza bera egingo dutela ere gogoratu nahi izan dute. Errezilen bihar izango dute jaia ordu beretik aurrera.

an», azaldu dute. Horiek horrela, azpiakututako gaixoak hiru taldeetan banatzen direla ere azaldu dute: eriondo fasean dauden gaixoak, birgaitzea behar dutenak, eta bizitzaren amaieran zainketa aringarriak behar dituztenak. Gune berriaren helburua «Tolosaldeko gizarte zerbitzuekin elkarlanean, etxera itzultzean gai xoen gizarte ingurunea hobetuko dituzten irtenbideak bilatzea izango da, bai etxean bertan, eta baita erietxeetan edo bestelako osasun guneetan ere».

Orain arte era honetako gaixo-

ak Donostiako Ospitalera joaten ziren eta baita Matia Fundazioara edo Gurutze Gorrira ere. Orain ordea, Tolosan bertan izango dute zerbitzua Asuncion klinikak azaldu duenez. «Gaur egun, urtero, 50 gaixo gehiago mugitzen dira klinikatik Donostiako osasun guneetara. Egonaldi ertaineko gune berriari, mota honetako Tolosaldeko eri guztien beharrez arduratu ahal izango dela uste dugu, batez beste, urtero, 35 eguneko 100 egonaldi izaten dira, eta guztiak artatu ahal ditugu», gaineratu dute.

Elkarretaratzeak egingo dituzte Senperereko hilketa salatzen

Emakumeen Mundu Martxako Plataformak egin du deialdia gaurko, Leitzan eta Tolosan

R.C. Tolosa/Leitza

Aurreko astean Senperen (Lapurdi) gizonezko batek emaztea hil zuen, eta Emakumeen Mundu Martxako Plataformak indarkeria sexistari ematen den gizontietan egin ohi duen moduan, elkarretaratzeak deitu ditu. Hilketa sala-

tzeo bilkurak gaur izango dira; Tolosan 19:30ean, Trianguloa plazan, eta Leitzan 19:00etan, Lopeneko atarian.



Martxoan Tolosan izandako hilketa salatzeneko elkarretaratzea. I.T.

Errebeharrak pasa den astean izan zen. 85 urteko gizonezko batek bere bikotekidea hil zuen Senperen (Lapurdi), Urguri auzoan.

Eskopeta batekin burutu zuen eraso, sabelean tiro eginda, pasa den asteburuan jakin zenez, eta ondoren bere buruaz beste egin zuen. Orain dela hiru hilabete ziren ezkonduak, Bordelen, apirilaren 28an.

Emakumeen Mundu Martxako Plataformak azaldu duenez, indarkeria sexistari aurre egiteko garaia da eta nahikoa dela esateko bilduko dira Tolosan eta Leitzan.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Tolosaldea Euskal Herriko txapel-duna igerian, nesken infantil mailan

I. Garcia Landa

Pasa den asteburuan Tolosako Usabalgo igerilekuan infantil mailako Euskal Herriko txapelketa jokatu zen. Tolosaldea IKTKoako urte guztian egindako hobekuntza erakusteko gogo biziz azaldu ziren. Bikaina izan zen asteburuan lortutako marken hobetzea eta jasotako domina piloia. Eta erakustaldiari bukaera bikaina emateko nesken taldea gainontzeko hogeita hamar taldeei gailendu zitzairen taldekako sailkapen orokorrean.

Uztailaren 18 eta 22 artean jokatuko den Espainiako Txapelketarako bederatzigarri sailkatu ditu Tolosaldea IKTK. Beñat Bidaola 200 libretan, Julen Urretabizkaia eta Xabier Beitia 200 bizkar proban, Nerea Esandi 50 eta 100 libretako probetan, Ane Gonzalez 100 eta 200 bizkar probetan, eta Nerea Rodriguez 200 libre, 100 bizkar eta 200 bizkar probetan. Marina Etxarri bere aldetik, bular estiloko 100 eta 200 probetan ariko da eta errelebotako probetan Elene Cuadrado eta Maialen Mujika izango dira Bartzelonako igerileku olimpikoan igeri egingo dutenak.

Tolosaldea IKTKtik gaineratu dutenez, Euskal Herriko Txapelketako antolakuntzan «bikain aritu zen guraso taldea. Eskerrik asko gurasoei eta zorionak igerilari».

Camille Extreme probako marka hobetu dute Ait Chaouk eta Ibarbiak

I. Garcia Landa

Hassan Ait Chaouk billabonatarak eta Aitziber Ibarbia zizurkildarrak Camille Extreme proba irabazi eta bertako marka hobetu dute. Izabako kirol elkarrekin antolatzen du proba, Nafarroako Erronkaribarren, eta 31,6 kilometro ibilbidea du.

Ait Chaouk 2:59:08ko denbora behar izan zuen proba amaitzeko, eta aurreko marka zazpi minututan hobetu zuen. Ibarbiak 3:46:13ko denbora egin zuen eta sei minututan hobetu zuen probaren marka. Guztira 282 parte hartzaile izan ziren Camille Extreme proban.

Neville Tranter ◉ Txotxongilolaria eta irakaslea

Unima Udako Eskolan, 'Txotxongiloaren indarra' ikastaroa ematen ari da Neville Tranter txotxongilolaria. Gizatasuna erakusteko txotxongiloak «erreminta ezin hobeak» direla dio.

«Txotxongiloekin lan egitean, antzerkiaren sustraietara zoaz»

Imanol Garcia Landa Tolosa

Topic zentroan egiten ari diren Unima Udako Eskolaren barruan, Neville Tranter (Warwick, Queensland, Australia, 1955) ari da ikastaro nagusia ematen, *Txotxongiloaren indarra* izenekoa.

Tranter australiarra da izatez baina 1978tik Herbereetan bizi da, bertako Festival of Fools izeneko jaialdian emanaldiak egin ondoren, European bizitzeko hautua egin baitzuen. Stuffed Puppet taldea sortu zuen 70eko hamarkadan, eta izen horrekin jarraitzen du lanean. Bera da taldeko txotxongilolaria bakarra, eta txotxongiloekin batera antzeztzen du. Helduentzako obrak egiten ditu. Azkenaldian hainbat ikastaro ematen ari da txotxongiloen munduan.

Zergatik egiten dituzu helduei zuzendutako obrak?

Haurrentzako emanaldiak egiten prestatu nintzen, baina sentitu nuen posible zela helduentzako txotxongiloekin antzerkia egitea, eta orduan erabaki nuen bakarrik helduei zuzendutako obrak egitea. Ez daude talde asko hori egiten dutenak.

Zailagoa da helduentzako egitea?

Bai, heldu askok ez dakielako beraien zuzendutako txotxongilo antzerkia dagoenik. Horregatik erabaki nuen horretan bereiztea. Baita ere nire jakin-minarengatik, hau da, ikusteko zer egin daitekeen arlo horretan.

Ikuslego mota horrek asko exijituko du, ezta?

Nire esperientziatik guztiz posible da helduentzako txotxongilo antzerkia egitea. Txotxongiloek zerikusia dute gizakiaren gizatasunarekin. Eta txotxongiloak dira gizatasuna erakusteko erreminta bikainenak. Hain justu, txotxongiloekin lan egitean antzerkiaren sustraietara zoaz. Beraz, heldua baldin bazara ere, eta ez baduzu behin ere txotxongiloekin egindako antzeztan bat ikusi, posible da ikusten duzunarekin bat egitea.

Eta nola lortzen da hori?

Gorputzaren lengoaiaren eta arketipoen bidez. Horiek bide oso unibertsalak dira, edonork eza gutzen ditu. Antzeztan egin izan ditudan herrialde guztietan ezagutzen dituzte.

Zenbat denbora daramazu ikastaroa ematen?

Azken hamar urteetan ari naiz.



16L

Hasieran ez zitzaidan gustatzen, lehen aldi horretan lan asko suposatuzuelako. Orain asko maite dut irakastea, eta agertokira eramaten dudana magia irakatsi dezaket. Oso tekniko da, prezisio handia behar da.

Alde teknikoa izan daiteke zailena?

Txotxongiloekin ari zarenean, eskuekin lan egiten duzu, eta antzerki mota oso fisikoa da. Ikusteko berezia da, irudiak sortzen dituzte, eta gainera oso irudi indartsuak sortu ditzakezu, gizatasunaren metaforak izan daitezkeen irudiak. Horretarako txotxongiloak erreminta ezin hobeak dira, modua topatzen baduzu.

Nolatan etorri zara Tolosara ikastaroa ematera?

Topic zentrotik gonbidatu naute. Asko bidaiatzen dute eta obra asko ikusten dituzte. Frantziako Charleville Mézieres herrian mundu mailako jaialdi garrantzitsua egin da eta bertan ikusi ninduten.

Nondik etorritakoak dira ikastaroan dituzun ikusleak?

Brasil, Uruguai, Italia, Zeelanda Berria, Espainia, Euskal Herria... hainbat lekuek etorri dira ikusleak. Txotxongiloekin lan egitea komunikazioarekin lan egitea da. Antzerkia niretzat komunikazioa da. Txotxongiloekin antzeztana oso ondo egiten badu-

zu, ikuslegoak sentitzen du gauza berri bat ikusten ari dela, lehenengo aldiz gertatzen ari den gauza baten lekuko direla. Freskotasan hori dute txotxongiloek.

Eta hori irakasten diezu.

Bai. Adibidez: aktore moduan nire eskuari begiratzen badiot eta gero ikuslegoari erakusten badiot, ez du esanahi handirik; baina txotxongilo batek hori egiten duenean, hau da, bere eskuari begiratzen dioenean eta bere eskuak erakusten duenean, eta bere ezustekoa azaltzen dioenean ikuslegoari, gauza erabat ezberdina da. Txotxongiloak gizakia irudikatzen du, eta ematen du ari garela ikusten gizaki bat bere eskuaren lehenengo aldiz ikusten ari dena.

Nola egiten duzu praktikan irakaskuntza hori?

Zeno izeneko txotxongilo bat erabiltzen dut; aspaldi berarekin antzeztan egiten nituen. Hasiera batean teknika erakusten dut, baina benetan irakasten dudana da nola egin txotxongiloa bizirik dagoela irudikatzen. Hori egiteko teknika ikasi behar dute: leerroak, anguloak, prezisioak. Horretarako egunero ikasleek antzeztu egiten dute.

Haurrentzako ere ikastaroa ematen dituzu?

Ez, haurrekin ez dut lan egiten. Aktoreei, txotxongilolariei, operari abeslariari, abeslariari... erakusten diet. Bi opera zuzendu ditut Suitzan, eta abeslari txotxongiloekin antzeztan erakutsi nien. Ikastaro bat eman nuen opera abeslariari zuzenduta, eta berehala ikusi nuen txotxongiloak eta opera oso lotuta daudela.

Iragarki laburrak

ALOKAIRUAN

■ Oporretako apartamentua.

Peñiskolan, zazpi pertsonentzat egokitutako apartamentua alokatzen da. Hondartza aurrean dago. 2 balkoi, 2 igogailu, 2 igerileku, aire egokitua eta parking-a dauka. Interesatuek deitu

696 60 25 27 telefono zenbakira.

SALGAI

■ **Autoa.** Suzuki Vitara 2000 HDI auto salgai. 100.000 kilometro dauka eta oso egoera onean dago. Aukera paregabea! Deitu 649 510941 zenbakira.



Olioz margotutako hamabost bat koadro ditu Mirari Bengoak; Alegiako Jubilatuen tabernan jarri ditu ikusgai horietako gehienak. E. MAIZ

Lehen semea izan zuenean hasi zen margotzen Mirari Bengoa tolosarra; urte askoz albo batera utzita eduki ostean, erretiroa hartzearekin batera heldu zion berriz koadroak pintatzeari.

Egunerokotasunetik ihesi

Eneritz Maiz Alegia

Paisaiak dira nagusi Alegiako Jubilatuen tabernan dagoen margolan erakusketan. Mirari Bengoa tolosarraren margolanak dira. Olio margotutakoak dira guztiak.

Lehen semea eduki, eta 4-5 urte zituenean hasi zela margotzen ekarri du gogora Bengoak. Berrogei urte pasa dira orduz geroztik. Orduan, Andoainean margotzen

zuen, eta zazpi urtez aritu ostean, lanean hasi zela eta pintzelak albo batera utzi zituen. Betidanik gustatu izan zaio margotzea, eta erretiroa hartzearekin, berriz heldu zion albo batera utzita zuen bere afizioari.

Tolosako kultur etxean pasatzen ditu arratsaldeak. Pintzel artean orduak pasatzeak lasaitu egiten duela kontatu du: «Izugarrri gustatzen zait margotzea, eta oso gustura joaten naiz. Denbora hain azkar doa, ez dakidala aur-

tengoa hiru edo laugarren urtean dudan», adierazi du. Margoak munduko arazoetatik ihes egiteko baliatzen dituela esan du Mirari Bengoak.

Argazkietatik margotuenak

Koadro bat margotzen hasi aurretik, lehenengo, gustuko dituen tokietan argazkiak ateratzen ditu. Ondoren, argazkiei begiratuta margotzen du.

Gehienak olio margotzen badi-ere, akuarela ere erabiltzen du

bere argazkiak margotzeko. Aurretik jarri ditu ikusgai bere lanak lehen aldiz. Tolosako bi tabernetan eduki ostean, Alegiako Jubilatuen tabernan jarri ditu. Uztaila erdi aldera arte, hau da, herriko Karmen jaiak hasi bitartean, egongo dira ikusgai.

Berak margotutako koadroak erosteko aukera eskaintzen du: «Tolosan jarri nuen lehen erakusketan koadro bat saldu nuen. Ez nuen inondik inora ere saltzea espero», gaineratu du.



Akademia Pausoka
 UZTAILA eta ABUZTUA IRAILA
 'First Certificate Exam' Kurtso hasiera 2012-2013
 Klase irrintzeboik. Matematika gertak. Maiz gertak.
 Erreformatu klaseak Fisika, Kimika, Matematika...
 Martin J. Iraola, 2- behea 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
 943.249.161 | 686.971.962

Irudia Bidegoian



DEBA HERRIA EZAGUTUZ

Bidegoian eta Errezilgo eguneko zentroko onuradunekin batera, etxetik etxeko laguntza zerbitzua jasotzen duten onuradunek irteera egin zuten, Debara. Deba herria ezagutu zuten, eta Talasoterapiari bazkalduta zuten. Taldea, urte urte handitzen ari da, eta prest azaltzen dira irteerak egiteko. HITZA

Hitza Pilota Txapelketa, azken finalerdien zain

Nagusiek gaur jokatuko dituzte finalaurreko partidak, Beotibarren, eta jubenilek, bihar, Amezketan

Asier Imaz

IX. Hitza Pilota Txapelketa azken txanpan dago, final handien atarian. Horretarako oraindik lau lehia jokatu beharko dituzte: nagusien eta jubenilen finalerdiak. Helduenak gaur ariko dira Tolosako Beotibar pilotalekuan, 18:30etik aurrera. Jubenilek bihar izango dute hitzordua, Amezketan, 17:30etik aurrera.

Bi final hauek nortzuen artean jokatuko dituzten erabakitzen denean, 24 pilotarik ziurtaturik edukiko dute finaleko txartela. Txapelaren lehia uztailaren 14ean, larunbatean, izango da, ohi bezala, Tolosako Beotibar pilotalekuan. IX. Hitza Pilota Txapelketako finalak 09:30ean hasiko dira, eta sei mailatan jokatuko dituzte finalak.

Iragan asteburuan, hamasei finalisten izenak zehaztu ziren. Eskualde guztian barrena jokatuko

IX. Hitza Pilota Txapelketa

BENJAMINAK

Finala
Altuna-Estarbe
Esteban-Zubeldia

ALEBINAK

Finala
Lasa-Ugartemendia
Iraola-Alberdi

INFANTILAK

Finala
Arandia-Aizpitarte
Zubeldia-Artola

KADETEAK

Finala
Egiguren-Beloki
Labaka-Salegi

ren finalerdietako partidak, eta txapelketa polita jokatu dutenek, sari ederra lortu zuten.

Benjaminak Albizturren aritu ziren. Altuna-Estarbek 16-14 irabazi zien Zeberio-Moralesi, eta Esteban-Zubeldia bikoteak bostean

JUBENILAK

Finalerdiak, bihar 17:30ean, Amezketan
Ormazabal-Imaz
Labaka-Balerdi
Galarraga-Iruretagoiena
Mujika-Erasun

NAGUSIAK

Finalerdiak, gaur 18:30ean, Tolosako Beotibarren
Jaka-Erostarbe
I. Urbietia-Telletxea
Gailurralde-Santxex
Mujika-Zubiri

***Hitza Pilota Txapelketako finalak, maila guztietakoak, uztailaren 14ean jokatuko dira Tolosako Beotibar pilotalekuan, 09:30etik aurrera.**

utzi zituen Lasa eta Lopetegi. Alebinetan, Asteasun, Lasa-Ugartemendia tanto bakarreko aldeaz irabazita iritsi dira finalera, Olazabal-Erasoren aurka; bigarren finalerdian, Iraola-Alberdik 16-8ko garaipena lortu zuten, Mora-



Altzon eta Albizturren jokatutako partidak. E. MAIZ/ I. TERRADILLOS

les-Zeberioren aurka. Infantilen arteko lehiak Altzon jokatu zituzten. Arandia-Aizpitartek 18-12 irabazi zuten, Altuna-Zubeldiaren aurka, eta Zubeldia-Artolak bostean utzi zituzten Luzuriaga eta Otaegi. Kadeteen finalerdiak Bidegoianen jokatu ziren. Laba-

ka-Salegik 18-7 egin zuten Etxeberria-Mendiren aurka. Bigarren finalerdian, Egiguren-Belokik lortu zuten garaipena, 18-9, Peña-O. Aburuzaren aurka.

Garaipena lortu zuten bikote horiek egongo dira Beotibarko finaleran.

Volvo Ocean Race proba atzo amaitu zen, bederatzita etapa jokatu ondoren; 'Groupama' ontzia izan da irabazlea

A. Imaz Ibarra

Xabi Fernandez munduaren itzulia atzo goizaldean amaitu zen, Volvo Ocean Race bela probaren bederatzigarren etaparekin batera. Ibartarraren ontzia, *Telefonica*, laugarren sailkatu zen, bai etapan eta baita sailkapen nagusian ere.

Orain Olinpiar Jokoen txanda izango da, Xabi Fernandez eta Iker Martinez Londresen egongo baitira, urrezko dominaren lehian.

Lau egun Galwayn

Volvo Ocean Race amaitu bezain pronto, Xabi Fernandezek probaren balantzea egin zuen: «Partida osoan aurretik joan garenen sentsazioa daukagu, gero luzapean galtzeko. Munduari emandako itzuli honen ondoren, gauza askorekin gelditzen naiz; fin aritu gara lanean, denbora luze eta lantalde bikainarekin. Brasilerira iritsi bitartean, dena bikain joan da, eta gero okertzen hasi dira gauzak. Ulertzea ere zaila da eskuetatik egoerak nola alde egin digun».

Xabi Fernandez ontzia, laugarren

Probaren azken etapa lehiaren parekotasunaren isla izan zen. Lehen lau ontziak hamazazpi minuturen aldearekin iritsi ziren Irlandako helmugara. *Telefonica* ontziak, Volvo Ocean Race probaren hasieran bezala, aurrea hartu zuen hasieran. Ondoren, ordea, *Puma* eta *Groupama* ontziek gainditu zuten.

Egindako lanarekin gustura agertu ziren *Telefonica* ontziko itsas gizonak, eta kiroltasunez jo-

katu zuten etaparen amaieran, garaileei zorionak emanaz: «*Groupamak* merezita irabazi du, lan bikaina egin baitute. Hasieran, kosta egin zitzaizkien lehian sartzea, baina aspaldi esan genuen eurak izango zirela etsai gogorrenak».

Eta guztietako denbora kontuan hartuz gero, *Telefonica* izan da azkarrena, baina puntuen araberako lehia denez, laugarren postuan amaitu dute Xabi Fer-

nandezek eta bere kideek. Orain, lau eguneko atsedaldia hartuko dute Galwayn. Horren ondoren, puntuagarria ez den azken

proba jokatuko dute, Irlandako kostaldean. Behin hau amaituta, sari banaketa ekitaldia egingo dute.

Sailkapenak

AZKEN ETAPA

1. 'Camper with Emirates'. Egun bat, hamahiru minutu eta 40 segundo.
2. 'Groupama sailing team'. Zazpi minutura.
3. 'Puma Ocean Racing by Berg'. Hamahiru minutura.
4. 'Team Telefonica'. Hamazazpi minutura.

OROKORRA

1. 'Groupama sailing team'. 250 puntu.
2. 'Camper with Emirates Team New Zealand'. 226 puntu.
3. 'Puma Ocean Racing by Berg'. 220 puntu.
4. 'Team Telefonica'. 209 puntu.

ERRETENGIBEL UDAL BAZKUNAK SALGAI DITU:

- Rondilla kalea, 3. zenbakian 4 etxebizitza tasatu eta merkataritzako 160 m²-ko lokal bat.
- Plaza Berria, 1. zenbakian etxebizitza bat.

Informazio gehiagorako deitu
618 77 29 54
telefono zenbakira.

Uda honetan **zatoz HITZAren itzalera**

Egin harpidedun Ekainaren 4tik Uztailaren 27ra eta jaso eguzkitako hau oparri!

Harpidatzearen artean: Ozeanik Surf Performance surf taula probatzen ariko gaitu.

Haztekoak: **902-82 02 01**
haztekoak@hitza.info

hitza

Iñigo Terradillos Leitza

Egundaino inork egin ez duena lortu du, denboraldi berean bigarren mailako binakako eta banakako txapelketak irabaztea, alegia. Lehen mailan ariko da Jon Jaunarena (Leitza, 1992) datorren denboraldian. Jakitun da maila handiko pilotarietara lehiatu beharko duela, baina, berak ahal duen hobekien egiten saiatuko dela dio.

Urte bikaina izan duzu, erraz errepikatzen diren horietakoa.

Bai. Eta are gehiago kontuan hartuta pasa den urtean eskuetatik eta gaizki egon nintzela. Aurten dena ongi atera zait, bai txapelketei dagokionean, bai eta gorputzari dagokionean ere. Oso pozik nago egin dudana urtearekin.

Egin duzun urtearekin eta eman duzun mailarekin, etorkizun oparoa duzula diote gehienek.

Oso pozgarria da jendeak zugatik hori esaten duela ikustea. Gauzak ongi egiten ari naizenaren seinale dela pentsatzen dut. Beraz, orain arte egin moduan, egunero entrenatzen eta lanean jarraituko dut, etorkizunean ere horrela ko maila ematen saiatzeko.

Larunbateko finalean Ezkurdia garaitu zenuen. Nola gogoratzen duzu partida?

Beldur pixka batekin joan nintzen. Izan ere, finala atzeratu eginenez, hilabetez egon nintzen partidarik jokatu gabe, eta beldur nintzen gorputzez nola egongo ote nintzen. Entrenamenduetan ez nuen neure burua oso ongi ikusi, eta hori dela eta, ez nuen erabateko konfiantza. Baina, partidaren hasieratik oso gustura sentitu nintzen, eta hala izan zen amaierara arte.

Horren seinale da zu jarri zinela aurretik segituan, alde handiarekin, gainera.

7-2 jarri nintzen aurretik, baina, gero Ezkurdia gerturatu egin zen. Hasieran ez zuen asmatu, baina gero pixkana hobetuz joan zen. Hala, esaterako sakez hiru tanto egin zizkidan, eta azkenean berdintzea lortu zuen. Partidaren erdialdera nahiko parekatu egin ginen biok.

Baina, hasieran gertatu moduan, bukaerara zuzan zinen nagusi.

Hamalauna arte berdinduz joan ginen. Ordura arte oso gogorra izan zen partida. Biak ere asko nekatu ginela sumatzen zen. Nik orduan sakez pare bat tanto egin nituen, eta bera konfiantza galtzen hasi zela zirudien. Nik nahiko ongi eutsi nion bukaerara arte. Gustura egin nuen azken zati hori.

Bazenekien Ezkurdiari atzean egin behar zitzaioela eraso.

Kolpea da nire ezaugarriarik nabarmena, eta hori baliatu nuen finalean. Banekien Ezkurdiaren aurka, pilota atzera bota behar nuela, eta, batik bat, paretarekin gurutzatu behar nuela. Izan ere, boleaz oso ona da, eta min handia egin dezake, baita bosgarren



IT.

Jon Jaunarena › Pilotaria

Bigarren mailako buruz buruko txapelketa irabazi ostean, denboraldi berean bi lehia handiak lortu dituen bakarra da Jon Jaunarena; datorren urtean, handiekin jokatzera pasako da.

«Lehen mailan dauden pilotariak niregandik oso urrun daudela uste dut»

nahiz seigarren koadrotik botata ere. Beraz, hori eragotzi behar nuen.

Aimar Barriola izan duzu botilero lanetan. Zer moduz moldatu zara berarekin?

Oso gustura aritu naiz berarekin. Une bakoitzean zer egin behar dudanean atsedean hartzeko, eta aldiz, ekin behar diodanean, eki-

teko. Oso ongi eraman zuen partida.

Nolatan izan da bera zure botileroa?

Pertsona batengan pentsatu behar nuen, eta berak profesional mailan urte asko daramatza, beragan pentsatu nuen. Nik esperientzia gutxi izanik, egokiena eskarmentu handia duen batengana jotzea zen, eta, kontuan hartuta, herrikoa dela eta enpresa

berekoa, ba, Barriola egokiena zen nire botileroa izateko.

Leitzarren babesa sumatu al zenuen finalean?

Bai. Gainera, gure partidaren ondoren Oinatz Bengoetxeak jokatzen zuen, eta agian arrazo horrengatik ohikoa baino leitzar gehiago zeuden pilotalekuan. Leitzar ugari zeuden frontoian, eta hori eskertzekoa da. Garrantzitsua da

horrelako partidetan. Finalaren ostean, guztion artean ospatu genuen. Elkartean afaria egin genuen, eta han bildu ginen denak.

Nolako harrera izan duzu Leitzan?

Oso ona. Herritar ugari gelditzen nau kaletik zorianak emateko, eta horrek asko poztzen nau. Benetan eskertzekoa da.

Nori eskaini diozu txapela?

Ez diot bereziki norbaiti eskaini. Beti nire aldamenean izan ditudanei eskaintzen diet.

Zer sentitzen duzu une honetan? Lehen mailara igotzeak eragindako ikara edota zirra sentitzen duzu eta gogotsu zaude goreneko mailan jokatzeko?

Gogo ikaragarria dut Lehen Mailan jokatzeko, baina, aldi berean,

«Finalera beldur pixka batekin joan nintzen, jokatu gabe hilabetez egon bainintzen»

«Txapela beti nire aldamenean izan ditudan guztiei eskaintzen diet»

«Gogotsu nago lehen mailan jokatzeko, baina errespetu handia ematen dit»

errespetu handia ematen dit. Sekulako kirolariak daude, eta maila oso handia dute guztiek.

Nola ikusten duzu zure burua lehen mailako pilotarietara alderatuz?

Iruditzen zait oraindik ere niregandik oso urrun ditudala. Oso goian baleude moduan ikusten ditut. Dena den, saiatu egin beharko dugu. Nik behintzat, ahal dudana hobekien egiten saiatuko naiz.

Zein izango da, hortaz, datorren denboraldiko erronka?

Eskuz banakakoan, esaterako, lehenbizi zein aurkari dauden ikusi beharko dut. Hasierako une honetan lehen partidaren pentsatuko dut. Hortik haratago ezin dut pentsatu une honetan.

Iragan larunbateko finalean botilero lanetan aritu zen Barriola beraren aurka ere joka dezakezu.

Gerta daiteke elkarren aurka jokatzea, bai. Hori bai, nik behar-gotik hasi beharko dut, baina pasa daiteke. Goi goian dagoen pilotaria da Barriola, eta final laurdenetatik hasten bada harentzat txapelketa, nik lehen partidak irabazi beharko nituzke, aurrera egin, eta puntu horretaraino ailegatzeko. Hori oso zaila izango da.

Zer helburu duzu jarrita datorren denboraldirako?

Orain gutxira arte telebistaz ikusten nituen Barriola edota Irujo bezalako goi mailako pilotariak, eta niretzat izar modukoak ziren. Berriekin lehiatzeko aukera izango nuenik ez zitzaidan burutik ere pasa, eta orain hori posible dela ikusten dut. Oso handia da.

● leitzaldea@hitza.info

→ **Laburrak****Bihar hasiko dira jaietako danborradako entseguak**

IBARRA ▶ Ibarako San Bartolome jaietako danborradaren prestaketa lanekin eta entseguen hasiko dira bihar. Bertan parte hartu nahi duten 2008 urtetik atzera (aurten 4 urte betetzen dituztenak) jaiotako haur eta gaztetxo guztiak Zubiaurre, Sendi-Ekintza, Txumitza, Danon, Ostaize eta Gaztelubide tabernetan zein kultur etxean jarriko dituzten zerrendatan izena eman dezaten eskatu dute Ibarako Udaletik. Animatzen direnek etzi izango dute izena emateko azken eguna. Danborradako entseguak bihar, uztailaren 12an, 19an eta 26an eta abuztuaren 21ean izango dira, eta gutxienez bi entsegutan parte hartu beharko da.

Masaje tailerra egingo dute bihar, Atekabeltzen

LEITZA ▶ Bi tailer dituzte aste honetan leitzarrek, Atebeltzen, 18:30etik aurrera. Bata, astelehenean izan zuten, sendabelar tailerra. Bertan, belar desberdinekin ukenduak egiten ikasi eta gero, bihar masaje ikastaroa izango dute. Hain zuzen ere, belarrekin egindako olioarekin masajeak egiten ikasiko dute. Nahi duen orok parte hartu ahaliko du.

Kultur lantegietako lanen erakusketa ikusgai

IBARRA ▶ Aste honetan amaituko da Ibarako kultur etxean dagoen erakusketa ikusteko aukera. Kultur lantegietako ikasleen artelanak izan dira bertan ikusgai, eta nahi duenak etzi izango du azken eguna. Egun taila, altzarien errestaurazioa, margoketa, eskulanak eta ehoniri tailerretako ikasleek ikasturtean zehar egin dituzten lanak dira ikusgai jarri dituztenak. Golez bisita daiteke.

Rapa Nui edo Pazko Irlako Haka Ara Henua taldea ari da Kulturantz ekimenean parte hartzen; ehunka ibartarrek ikasi dituzte euren dantzak eta musika eman dituzten tailerren bitartez.

Elkarbanatuz aberasten baita

Iñigo Terradillos Ibarra

Bisitari bereziak ditu egunotan Ibarrak. Rapa Nui irlako hainbat herritar daude gurean ostiraletik Ibarako Udalak eta Alurr dantza taldeak antolatutako Kulturantz ekimenean parte hartzen. Euren dantza, musika, eta kulturaren beste hainbat ezaugarri ari dira erakusten, emanaldi eta tailerren bidez.

Jaialdiarekin hasi zen ostiralean ekimena, eta han Euskal Herriko taldeekin batera aritu ziren dantzan. Herenegun, berriz, eurak izan ziren protagonista. Eurak, eta euren tailerretara gerturatu ziren ehunka herritarrek. Izan ere, gaztetxoak lehendabizi, eta helduagoak ondoren, 300 lagun inguruk parte hartu zuten. Aurpegia eta gorputza pintatzen, gorputza Rapa Nui edo Pazko irlako herritar bezala mugitzen eta kantatzen ikasi zuten. Eta, ondoren ikasitakoa erakusteko unea iritsi zen, parte hartu zutenetako hainbat Haka Ara Henua taldeekin batera dantza egitera Ibarako plazako agertokira igotzera ausartu baitziren.

Benetan aberasgarriena kultura guztietatik ikastea denez, Rapa Nuikoei iritsi zitzaizen ondoren euskal kulturaz elikatzeko txanda. Tailerren eta emanaldien ondoren, taloak egiten ikasi zuten, eta atzo Donostian izan ziren txistulari bandakoeekin. Asteazkenean zehar gurean ohikoen eta tradizionalak diren ezaugarriak erakusteko dituzte, hala nola, herri kirolak zer diren ikasiko dute.

Kulturantz ekimeneko antolatzailerak «oso gustura» daude izaten ari den harrearekin. Baita Pazko Irlako taldea ere. «Oso pozik gaude Ibarren egiten ari garen egonaldiarekin, jendeak oso ondo hartu baikaitu», azaldu dute. Bestalde, euren ere kultura gutxi-



Gerria eta eskuak mugitzea da oinarritzako Rapa Nuikoen dantzetan. ir.

tua den heinean, antzekotasunak ikusten dituztela eurenaren eta Euskal Herrikoaren artean diote. «Rapa Nui Polinesiar kokaturiko 5.000 biztanledun irla da; Txilerr dagokio, eta historian zehar zapalkuntza handiak jasan behar izan ditu, gure jatorrizko hizkuntza ere galtzekotan egon garelarik». Bada, Euskal Herriak euskara eta, oro har, kultura sustatzeko jarraitu dituen bideak euren irlarako aintzat hartuko dituztela azaldu dute.

Etzi, Tolosan

Ibarren euren dantza eta musika bereziak ikusteko aukera izan ez zuenak, Tolosan izango du, etzi. Izan ere, Gaugiro egitararen barruan ariko dira, Euskal Herria plazan, 22:00etatik aurrera, Ibarako Alurr dantza taldeekin batera.

Hemendik euren lurretara itzuliko dira, eta horrela bukatuko dute duela bi hilabete hasi zuten European barrena eginiko bira.



Goian, taloak egiten ikasten, eta behean aurpegia margotzen. ir./HITZA

Hilberriak eta urteurrenak**EUSTAKIA LABANDIBAR RETEGI**

-Goian bego-

Juan Jose eta Petraren alaba, 1920ko abuztuaren 26an Errenterian jaioa. Asteartean, hilaren 3an hil zen

Anai-ahizpak: Agustín (†) eta Teodosia Zurro, Irene (†), María (†) eta Antonio Babace (†), Axun (†) eta Xixilio Maritxalar (†), Begoña (†) eta Murtxe (†); ilobak, lagunak eta hurbil zituen orok, zuen memoriarik gorde dezazuen eskatzen dizuegu.

Etizkizunak ASTEAZKENA 4, arratsaldeko ZAZPIETAN, SAN JOSE LANGILEA parroki-elizan egingo dira.

Errenterian, 2012ko uztailaren 4an

Helbidea: San Sebastian kalea, 11.

Oharra: Hilbela Zentelongo tanatorioan egingo da, gaur arratsaldeko 17:00ak arte.

**MARIA MUJIK A SAN SEBASTIAN**

*Izaba maitea
beti egongo zarete gurekin,
zu, aita, ama eta Josetxo.*

Etzeko ilobak: Martin, Maxus, Josetxo (†)

Amezketan, 2012ko uztailaren 4an



LEHEN URTEURRENA

SUSANA ARDANAZ OTAÑO

(Txuri)



Pello Mari Otañoren biloba
Argentinako Mar del Platan zendu zen
2011ko uztailaren 4an.

Hernandorena Kultur Elkarrekin eta Zizurkilgo herriak, gogoan. Zaude bakean.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info
Ibarralde: 687 410 118. ibarralde@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leizalde: 687 410 118. leizalde@hitza.info

**Tolosa Herria
Hedabideak**

BERTAKO
HEDABIDEAK



**Galtzaundi
euskara
taldea**



eta Tolosaldeko
eta Leizaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. **Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

Irudia Tolosa-Alegia



BIDEGORRIA UZTAILAREN 16A ARTE ITXITA EGONGO DA

Tolosa eta Alegia bitarteko bidegorria itxita dago igande gauetik. Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi duenez, uztailaren 16a arte egongo da itxita, izan ere, bidean dauden hainbat zuhaitz egoera kaskarrean daude,

eta hauek moztu behar dituzte. Bidea Artzabalza paper fabrika inguruan itxi dute, Donostia-Beasain bidegorriko 35 kilometro puntutik 35,50 kilometro puntura. «Lanak arriskutsu samarrak dira, eta bidegorriaren ezauga-

rriak kontutan hartuta bidea moztea beste aukerarik ez dago», azaldu dute aldundiko arduradunek. Lanak espero bezala joanez gero, hortaz, uztailaren 16an irekiko dute berriz ere bidegorria. E.MAIZ

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amartz auzoa, 9. Telefonoa: 943 67 5118.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Aralar kalea, 43. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

Agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

AGURRAK

943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

●●●● **agurrak**

Larrun

Egunero idekia
8h30-tik 17h-ra
35 minutu guziz

Animazio berriak urririk!

www.rhune.com